# Pribatuen Iragarkiak

## SPRI SA

## 4277

IRAGARKIA, «KZ Urruneko Bakcupa» Programari buruzkoa, enpresa txikietako ordenagailuetan gordetako datuen urruneko babes-kopiak Internet bidez egiteko laguntza neurriak ezartzen dituena.

2002ko otsailaren 19ko Gobernu Kontseiluan onetsitako Euskadi Informazio Gizartean Planak honako hau dio: Informazio Gizarteak negozioak egiteko modu berri bat dakar berekin, Sarearen inguruan antolatutako ekonomian oinarritua. Informazioaren Teknologiek eta Komunikazioek zeregin garrantzitsua dute horretan. Era berean, eta beti ere «Enpresa Digitala» jardueraren eremuan, enpresek teknologia berrien erabilera susta dezatela nahi dugu.

Hori horrela, enpresek, gero eta gehiago, negozioaren hainbat arlotako informazioa (bezeroen zerrenda, hornitzaileen informazioa, komunikazioak, kudeaketaren edo/eta fakturazioaren datuak, eskaintzak, eta abar) formatu digitaleko fitxategietan gordetzen dute.

Eustatek egindako azterlanetatik ondoriozta dezakegunez, Euskadiko enpresetan, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien ekipamenduak eta erabilerak nabarmen egin du gora azken urteotan. Azterlan horien arabera, hamar langile baino gutxiagoko enpresek (mikroenpresek) ahalegin handia egin dute ekipamendua (ordenagailuak) eskuratzeko eta sarera konektatzeko garaian (posta elektronikoa eta Interneterako sarbidea).

Eustatek emandako azken datuen arabera, 10 langile baino gutxiagoko EAEko enpresetan, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien ekipamenduak eta erabilerak honako zifra hauek ditu:

% 57,1ek ordenagailua dauka.
% 42,6k Interneterako sarbidea dauka.
% 39,1ek posta elektronikoa dauka.

Hortaz, begi-bistakoa da enpresak beren informazio sistemen menpe daudela gero eta gehiago; horregatik, arazo larriak izango lituzkete beren ordenagailuetako datuak eskuratu ezingo balituzte, batez ere autonomoek eta mikroETEek.

Egoera horren ondorioz, gero eta beharrezkoagoa da gure enpresaren oinarri diren datuak eta informazioa modu seguruan gordetzea, edozer gauza gertatuta ere. Horrela, autonomo batek edo mikroenpresa batek bere fitxategiak galtzen baditu (ordenagailu bat lapurtuta, disko gogor bat hautsita, eta abar), informazio guztia minutu gutxitan berreskuratu ahal izango du.

# Anuncios Particulares

## SPRI, S.A.

## 4277

ANUNCIO del Programa «KZ Backup Remoto» por el que se establecen medidas de apoyo para impulsar la realización de copias de seguridad remotas y a través de Internet de los datos almacenados en los ordenadores de las pequeñas empresas.

El Plan Euskadi en la Sociedad de la Información aprobado en Consejo de Gobierno de fecha el 19 de febrero de 2002 recoge que la sociedad de la información trae consigo una nueva forma de hacer negocios basada en una economía articulada en torno a la red, donde las tecnologías de la información y las comunicaciones desempeñan un papel fundamental. Así mismo, y dentro del ámbito de actuación de «Empresa Digitala», tenemos como objetivo impulsar el uso de las nuevas tecnologías por parte de las empresas.

En este sentido las empresas, cada vez con mayor frecuencia, almacenan la información de las diferentes áreas de negocio en ficheros en formato digital (relación de clientes, información de proveedores, comunicaciones, datos de gestión y/o facturación, ofertas, etc.).

De los estudios realizados por el Eustat se desprende que el nivel de equipamiento y uso de las tecnologías de la información y las comunicaciones de las empresas en Euskadi ha aumentado considerablemente durante los últimos años. Estos estudios concluyen que las empresas de menos de diez trabajadores (microempresas), han realizado un esfuerzo importante a la hora de adquirir equipamiento (ordenadores) y dotarse de conectividad (e-mail y acceso a Internet).

Según los últimos datos aportados por Eustat, los niveles de equipamiento y uso de las TICs en los establecimientos con menos de 10 empleados en la CAPV son los siguientes:

El 57,1% dispone de ordenador.
El 42,6% tiene conexión a Internet.
El 39,1% tiene correo electrónico.

Así pues, parece evidente que las empresas son cada vez más dependientes de sus sistemas de información, por lo que cualquier empresa, y en especial los autónomos y micropymes, tendrían serios problemas si no pudieran acceder a los datos albergados en sus ordenadores.

Como consecuencia de esta situación, es cada vez más necesario que los datos y la información sobre la que bascula la actividad de nuestra empresa esté almacenada de forma segura ante cualquier incidencia. De esta forma, si un autónomo o microempresa sufre una pérdida de sus ficheros (robo de un ordenador, rotura de un disco duro, etc.), puede recuperar toda la información en cuestión de minutos.

Enpresaren informazioa gordetzeko kultura hori gure inguruneko ETEen artean oso zabalduta badago ere, ikusten dugunez, enpresaren tamaina murriztu ahala ez da hain ohiko neurria. 20 langiletik beherako enpresa askok Informatika Departamendurik ez dutela kontuan hartuta, komeni da urruneko backupa izeneko tresna sinpleak erabiltzea, Internet bidez ordenagailuetan gordetako datuen babes-kopiak egiteko eta, hala badagokio, informazioa berehala berreskuratzeko aukera ematen dutenak, Informazio Teknologien adituek esku hartu behar izan gabe.

KZ Urruneko Backupa Programak, Euskadi Informazio Gizartean Planaren baitan, enpresa txikien eta profesionalen ordenagailuetan gordetako datuen Segurtasuna hobetzea du helburu, Urruneko Babes-kopiak Internet bidez egitea bultzatuz.

*1. artikulua.–* Xedea.

KZ Urruneko Backupa Programaren helburua enpresa txikien eta profesionalen ordenagailuetan gordetako datuen Segurtasuna hobetzea da, Urruneko Babeskopiak Internet bidez egitea bultzatuz.

*2. artikulua.–* Laguntzen nolakotasuna.

1.– Ordenagailuetan gordetako datuen urruneko babes-kopiak egiteko ematen diren laguntzak ez dira itzulgarriak izango.

2.– Laguntza eskariak aurkezten doazen neurrian (behar bezala beteta badaude) erabakitzen joango dira eta, beti ere, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SAk KZ Urruneko Backupa Programako dirulaguntzak emateko daukan urteko aurrekontuetako kredituaren mugara arte, edo egozpen urtekotuaren aurrekontuan jarriko den mugara arte.

3.– Laguntzak emateko prozedura arau honen III. kapituluan ezartzen den bezala egingo da.

*3. artikulua.–* Onuradunak.

Jarduera ekonomikoa gauzatzen duten pertsona fisiko eta juridikoak izan daitezke onuradun, ondorengo baldintzak ere betetzen badituzte:

1.– Beren helbide soziala EAEn edukitzea edo gutxienez jarduera zentro bat EAEn kokaturik egotea.

2.– Laguntza Eskaria aurkezteko unean 20 enplegatu baino gutxiago izatea.

3.– Internet bidez Urruneko Backup Diferentzialeko Zerbitzu batean (enpresa onuradunaren ordenagailuetako datuen babes-kopia) alta kontratatu dutela egiaztatzea, laguntza eskaria aurkeztu denez geroztik 2

Si bien esta cultura por salvaguardar la información de la empresa está ampliamente extendida entre las pymes de nuestro entorno, nos encontramos con que no se trata de una medida tan habitual cuando se reduce el tamaño de las empresas. Atendiendo a que, muchas de las empresa con un tamaño inferior a 20 empleados no suelen disponer de departamento de informática, se hace recomendable la utilización de herramientas sencillas de backup remoto, que permitan, a través de Internet, la realización automática de copias de seguridad de los datos almacenados en sus ordenadores y, en caso necesario, su recuperación inmediata, sin la intervención de expertos en el uso de las tecnologías de la información.

El programa KZ Backup Remoto, enmarcado dentro del Plan Euskadi en la Sociedad de la Información, pretende contribuir a mejorar la seguridad de los datos almacenados en los ordenadores de las pequeñas empresas y los profesionales, impulsando la realización de copias de seguridad remota a través de Internet.

*Artículo 1.–* Objeto.

El objeto del Programa KZ Backup Remoto es contribuir a mejorar la seguridad de los datos almacenados en los ordenadores de las microempresas y los profesionales, impulsando la realización de copias de seguridad remota a través de Internet.

*Artículo 2.–* Naturaleza de las ayudas.

1.– Las ayudas destinadas a impulsar la realización de copias de seguridad remota de los datos almacenados en los ordenadores, tendrán la consideración de subvenciones no reintegrables.

2.– Se procederá a resolver las solicitudes de ayuda a medida que se presenten siempre que estén debidamente cumplimentadas y hasta el límite del crédito presupuestario consignado al efecto en los presupuestos anuales de la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. para la concesión de subvenciones del Programa KZ Backup Remoto o del que resulte necesario para la cobertura presupuestaria de la imputación anualizada.

3.– El procedimiento de concesión de ayudas se efectuará conforme a lo que se establece en el Capítulo III de la presente norma.

*Artículo 3.–* Beneficiarios.

Podrán ser beneficiarias las personas físicas y jurídicas que realicen actividad económica y que, además, cumplan los siguientes requisitos:

1.– Que tengan su domicilio social en la CAPV o que al menos un centro de actividad este ubicado en la CAPV.

2.– Que en el momento de la presentación de la solicitud de ayuda tengan menos de 20 empleados.

3.– Que acrediten haber contratado un alta en un servicio de backup diferencial remoto a través de Internet (copia de seguridad de los datos de sus ordenadores de la empresa beneficiaria), con una antigüedad no supe-

hilabete igaro ez direnean eta gutxienez 12 hilabeteko eperako, Spri SAk homologatutako hornitzaileetako batekin, zerbitzu hori eskain dakion.

4.– Zerga alorreko betebeharretan eta Gizarte Segurantzari dagokionetan egoera erregularizatuta edukitzea, hala nola Spri taldeko edozein elkarterekin dituen betebeharretan ere bai.

5.– Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea.

Ez dira onuradun izango sozietate publikoak, ezta Zuzenbide Publikoko erakundeak ere.

*4. artikulua.–* Laguntza eskariak aurkezteko epea.

Laguntza eskariak aurkezteko epea programa hau EHAAn argitaratzen denean zabalduko da, eta Spri SAk www.spri.net web orrian zerbitzu honetarako homologatutako enpresa hornitzaileen zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Aurkezteko epea urte bereko abenduaren 31n amaituko da.

*5. artikulua.–* Diruz laguntzeko moduko egitatea.

Diruz laguntzeko moduko egitatetzat hartuko dira Internet bidez urruneko babes-kopiak egiteko eta berreskuratzeko Zerbitzuen gastuak (zerbitzuko alta barne), programa honetako zerbitzu horiek eskaintzeko Spri SAk homologatutako edozein hornitzailerekin kontratatzen direnean.

Aurreko paragrafoan deskribatutako lanak enpresa eskatzailearekin akzio edo partizipazio bidezko loturarik (ez zuzenekorik edo zeharkakorik ere) ez duten erakunde edo enpresa espezializatuek egingo dituzte.

*6. artikulua.–* Laguntzen zenbatekoa.

1.000 eurora bitarteko diru-laguntza onuradun bakoitzeko, Spri SAk homologatutako edozein hornitzaileri kontratatuta, Internet bidez babes-kopiak egiteko eta berreskuratzeko zerbitzuek (zerbitzuaren alta barne) sortutako gastuei aurre egiteko, baldin eta, kontratua egin denez geroztik 2 hilabete gehienez ere igaro badira, Laguntza Eskaria aurkeztutako datatik kontatzen hasita, eta baldin eta zerbitzuak emateko kontratuaren iraupena gutxienez 12 hilabetekoa bada.

Diru-laguntzaren kalkulua:

Diru-laguntza ez da inoiz Backup zerbitzuaren lehen 6 hilabeteen prestazioari dagozkion gastuak baino handiagoa izango.

Diru-laguntza ez da inoiz hilean 60 eurotik gorakoa izango, kontratatutako lizentzia bakoitzeko. Enpresa onuradun bakoitzeko diruz lagun daitezkeen lizentziak bederatzi izango dira gehienez ere.

Zerbitzuan alta emateagatik (baldin eta horrelakorik balego) eman daitekeen laguntza ez da inoiz 20 eurotik gorakoa izango.

rior a 2 meses desde la presentación de la solicitud de ayuda y por un periodo mínimo de 12 meses, con alguno de los proveedores que hayan sido homologados por Spri, S.A. para la prestación de este servicio.

4.– Que tengan su situación regularizada en cuanto a sus obligaciones tributarias y para con la seguridad social, así como para con cualquiera de las sociedades del grupo Spri.

5.– Que se encuentren dadas de alta en el Impuesto de Actividades Económicas.

Quedan excluidas de la condición de beneficiario las sociedades públicas y entidades de derecho público.

*Artículo 4.–* Plazo de presentación de las solicitudes de ayuda.

El plazo de presentación de las solicitudes de ayuda se iniciará una vez publicado este programa en el BOPV y a partir del día siguiente de la publicación por Spri, S.A. en la web www.spri.net el listado de las empresas proveedoras homologadas para este servicio. El plazo de presentación finalizará el día 31 de diciembre del mismo año.

*Artículo 5.–* Hecho subvencionable.

Tendrán la consideración de hechos subvencionables los gastos derivados de los servicios de realización y recuperación de copias de seguridad remota a través de Internet (incluido el alta del servicio) contratados a cualquiera de los proveedores homologados por Spri, S.A. para prestar los citados servicios dentro de este programa.

Los trabajos descritos en el párrafo anterior deberán ser realizados por entidades o empresas especializadas que no tengan vinculación vía acciones o participaciones ni directa ni indirectamente con la empresa solicitante.

*Artículo 6.–* Cuantía de las ayudas.

Una subvención de hasta 1.000 euros por beneficiario para cubrir los gastos derivados del servicio de realización y recuperación de copias de seguridad a través de Internet (incluido el alta del servicio) contratados a cualquiera de los proveedores homologados por Spri, S.A. y que hayan sido contratados con una antigüedad no superior a 2 meses, contados a partir de la fecha de presentación de la solicitud de ayuda y siempre que el contrato de prestación de servicios tenga una duración mínima de 12 meses.

Cálculo de la subvención:

La subvención en ningún caso será superior a los gastos imputados a la prestación de los 6 primeros meses del servicio de backup.

La subvención en ningún caso superará los 60 euros/mes por cada licencia contratada. El número máximo de licencias subvencionables por empresa beneficiaria será de nueve.

La subvención máxima por el alta del servicio (si la hubiera), en ningún caso superará los 20 euros.

Enpresa onuradun bakoitzak behin bakarrik heldu ahal izango dio KZ Urruneko Backupa Programari, indarrean dagoen aldi guztian.

Laguntza eskaria aurkeztu baino bi hilabete lehenagoko fakturak, gehienez ere, onartuko dira soilik.

*7. artikulua.–* Beste laguntzekiko bateragarritasuna.

Enpresa eskatzaileek Spri SAri jakinaraziko dizkiote beste programa edo erakunde batzuetan helburu honetarako aurkeztutako laguntza eskariak edo haiengandik jasotako diru-laguntzak. Araudi honen arabera emandako diru-laguntzak bateraezinak izango dira helburu bera duten Administrazio Publikoek emandako beste diru-laguntzekin.

*8. artikulua.–* Minimis klausula.

Arautegi honetan jasotzen diren diru-laguntzak, 2001eko urtarrilaren 12ko Batzordearen 69/2001 araudian (EE) (Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean 2001eko urtarrilaren 13an argitaratua) ezartzen denari lotuta daude. Araudi hori, EEko Tratatuaren 87 eta 88. artikuluak Minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da. Europar Batasunak ezartzen duenez, edozein enpresari ematen zaion Minimis laguntzak, guztira, ezingo du 100.000 euro gainditu hiru urteko epean. Muga hau, laguntza modua edo lortu nahi den xedea zein den kontuan hartu gabe aplikatuko da.

*9. artikulua.–* Zerbitzu hornitzaileen homologazioa.

Spri SAk hala eskatzen duten enpresen esku jarriko du «enpresa txikietarako Urruneko Backup zerbitzurako baldintzei» dagokien informazioa, «KZ Urruneko Backupa» Programan eskatzen dena. Enpresa hornitzaileak, homologatuak izateko, araudi hau argitaratzen den egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean gehienez ere, Spri SAren aurrean dokumentu honetan ezartzen diren zerbitzuaren baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.

Data horretatik aurrera, eta hilabeteko epean gehienez ere, Spri SAk bere web orrian (www.spri.net) argitaratuko du homologazio-fase horren emaitza, eta hautatutako enpresekin kolaborazio-protokoloa sinatuko du. Une horretan zabalduko da enpresa onuradunek «Laguntza Eskariak» aurkezteko epea.

*10. artikulua.–* Prozedura.

Laguntza eskaria:

Laguntza Eskaria Internet bidez bete beharko da, Spri SAk horretarako jarriko duen helbidean (www.spri.net edota www.enpresadigitala.net). Enpresa eskatzaileak inprimakiak behar bezala bete eta ondorengo dokumentazioa bidaliko dio Spri SAri:

– Laguntza Eskariaren inprimakia behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta, eta aurkeztutako dokumentu guztiak egiazkoak direla egiaztatzen duen zinpeko aitorpena.

Cada empresa beneficiaria solamente se podrá acoger una vez al programa KZ Backup Remoto durante todo el período de vigencia del mismo.

Solamente se admitirán facturas con una antigüedad máxima de dos meses anteriores a la presentación de la solicitud de ayuda.

*Artículo 7.–* Concurrencia con otras ayudas.

Las empresas solicitantes tendrán la obligación de comunicar a Spri, S.A. cualquier solicitud u obtención de subvención o ayuda referida a los mismos conceptos subvencionables presentados u obtenidas de otros programas o instituciones. Las ayudas serán incompatibles con otras ayudas provenientes de la administración y que subvencionen los mismos conceptos.

*Artículo 8.–* Cláusula de Mínimis.

Las ayudas o subvenciones contempladas en la presente normativa están sujetas a lo dispuesto en el reglamento (CE) n.º 69/2001 de la Comisión de 12 de enero de 2001, publicado en el Diario Oficial de la Unión Europea de 13 de enero de 2001 relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado CE a las ayudas de Minimis. Según lo establecido por la Unión Europea, la ayuda total de Minimis concedida a cualquier empresa no deberá exceder de 100.000 euros en un periodo de tres años. Este límite se aplicará independientemente de la forma de la ayuda o el objeto perseguido.

*Artículo 9.–* Homologación de proveedores del servicio.

Spri, S.A. pondrá a disposición de las empresas que lo soliciten la información correspondiente a las «condiciones para el servicio de backup remoto para pequeñas empresas» requerido en el Programa «KZ Backup Remoto». Las empresas proveedoras, para poder ser homologadas, deberán acreditar ante Spri, S.A. en un plazo no superior a un mes, contado a partir de la fecha de publicación de esta normativa, el cumplimiento de todas las condiciones del servicio establecidas en este documento.

A partir de esta fecha, y en un plazo no superior a 1 mes, Spri, S.A. publicará en su web (www.spri.net) el resultado de esta fase de homologación, y procederá a la firma de un protocolo de colaboración con las empresas seleccionadas, abriéndose en ese momento el plazo para la presentación de las «solicitudes de ayuda» por parte de las empresas beneficiarias.

*Artículo 10.–* Procedimiento.

Solicitud de ayuda:

La Solicitud de ayuda deberá cumplimentarse a través de Internet en la dirección que Spri, S.A. habilitará para tal efecto en www.spri.net y/o en www.enpresadigitala.net. La empresa solicitante deberá cumplimentar debidamente los formularios y simultáneamente remitirá a Spri, S.A. la siguiente documentación:

– Formulario de solicitud de ayuda debidamente cumplimentado, firmado y sellado que incorpora declaración jurada respecto de la veracidad de todos los documentos presentados.

– Jabetzako eskrituraren fotokopia, zeinen bitartez egiaztatzen den pertsona sinatzaileak ordezkatzeko nahikoa ahalmen duela laguntza eskari hau enpresaren izenean egiteko, eskatzailea pertsona juridikoa denean.

– Sinatzen duen pertsonaren NAren fotokopia.

– Internet bidez datuen babes-kopiak egiteko eta berreskuratzeko Urruneko Bakcup Zerbitzuaren Kontratuaren fotokopia, Spri SAk homologatutako edozein hornitzailerekin gutxienez 12 hilabeterako sinatu dena. Onuradunak, Laguntza Eskariaren bitartez, zerbitzu horretan alta gutxienez 12 hilabetez mantentzeko konpromisoa hartzen du.

– Eskaria egin aurreko ekitaldiko Ekonomi Jardueren gaineko Zerga, edota, Laguntza Eskaria egiteko unean, onuradunaren jarduera ekonomikoa egiaztatzen duen Ogasunaren Ziurtagiria, edo dokumentu baliokidea.

– Finantza erakundearen ziurtagiria, enpresa onuradunaren izenean dagoen banku-kontuaren titularitatea egiaztatzen duena.

– Azken TC-1, Laguntza Eskaria aurkeztu aurreko hilabeteari dagokiona, enpresaren langile-kopurua egiaztatzen duena.

Backup zerbitzu horietan Eskaria egiteko data baino lehenago, hau da, 2 hilabete baino gehiagoko aurrerapenaz alta eman duten enpresen Laguntza Eskaririk ez da onartuko.

Spri SAk enpresa eskatzaileari eska diezaioke dirulaguntzaren xede den proiektuarekin zerikusia duen dokumentazio edota informazio gehigarri oro eman dezala.

Eskatzailea ados badago, eskariko datuak Spri SAren fitxategi informatiko batean sartuko dira, diru-laguntzen programa hau aplikatu ahal izateko eta interesgarriak izan daitezkeen informazio bidalketak egiteko. Datu horiek Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundiei edota Urruneko Backup Zerbitzurako kontratatuko diren enpresa hornitzaileei laga dakizkieke, diru-laguntzen programa kudea dezaten (eta horrexetarako bakarrik). Eskatzaileak sartzeko, zuzentzeko, kitatzeko eta aurka jartzeko eskubideak egikari ditzake Spri SAren egoitzan (Gran Vía, 35-3, 48009 Bilbao).

Erabakia:

Spri SAk ebaluatuko ditu eskariak eta hartzen dituen erabakien berri emango die enpresa eskatzaileei. Spri SAk gehienez hiru hilabeteko epean hartu eta jakinaraziko dio erabakia enpresari, Laguntza Eskaria behar bezala bete eta artikulu honetan adierazitako agiri osagarriak entregatu direnetik zenbatzen hasita.

Diru-laguntzen ordainketa diruz lagun daitezkeen gastuen fakturak aurkeztean egingo da, eta beti ere bi hilabeteko epean.

– Fotocopia de la escritura de apoderamiento, que acredite poder de representación suficiente de la persona firmante para realizar esta solicitud de ayuda en nombre de la empresa, cuando el solicitante sea una persona jurídica.

– Fotocopia del DNI de la persona firmante.

– Fotocopia del contrato de servicio de backup remoto a través de Internet para la realización y recuperación de copias de seguridad de los datos por un periodo mínimo de 12 meses, suscrito con cualquiera de los proveedores homologados por Spri, S.A. El beneficiario se compromete a través de la solicitud de ayuda, a mantener el alta en este servicio durante al menos 12 meses.

– IAE del ejercicio anterior a la presentación de la solicitud o certificado de hacienda que acredite que la actividad económica que realiza el beneficiario en el momento de la presentación de la solicitud de ayuda, o documento equivalente.

– Certificado de la entidad financiera que acredite la titularidad de la cuenta bancaria a nombre de la empresa beneficiaria.

– Último TC-1, correspondiente al mes anterior a la presentación de la solicitud de ayuda, que acredite el número de empleados de la empresa.

No se admitirán solicitudes de ayuda de empresas que hayan tramitado su alta en estos servicios de backup con más de 2 meses de antelación a la fecha de presentación de la solicitud.

Spri, S.A. podrá requerir a la empresa solicitante cuanta documentación y/o información adicional relacionada con el proyecto objeto de subvención considere necesaria.

Los datos de las solicitudes serán incorporados en un fichero informático titularidad de Spri, S.A., previo consentimiento del solicitante, con la finalidad de aplicar el presente programa de subvenciones, así como para la realización de envíos informativos y que pudieran resultar de su interés. Estos datos podrán ser cedidos a las diputaciones forales y/o al Gobierno Vasco y a la empresa proveedora con la que el beneficiario decida contratar el servicio de backup remoto, con la finalidad exclusiva de la gestión de los programas de subvenciones. El solicitante podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación y en su caso cancelación y oposición en la dirección de Spri, S.A., c/ Gran Vía, 35-3.º 48009 Bilbao.

Resolución:

Spri, S.A. evaluará las solicitudes y emitirá las resoluciones correspondientes a las empresas solicitantes. Spri, S.A. emitirá la resolución y la comunicará a la empresa en el plazo máximo de 3 meses contados a partir de la fecha en que la solicitud de ayuda esté debidamente cumplimentada y haya sido aportada la documentación adicional indicada en este artículo.

El pago de las subvenciones se realizará a la presentación de facturas de los gastos subvencionables y en un plazo no superior a 2 meses.

*11. artikulua.–* Spri SAk, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarekin lankidetzan, ekimena bultzatzeko arduraduna baita, baliabide publikoak behar bezala aplikatzen direla egiaztatzeko eta KZ Urruneko Backupa Programaren garapena eta aplikazioa konprobatzeko egoki ikusten dituen egiaztapen, ikuskaritza eta gainontzeko kontrol neurriak burutzeko eskubidea gordetzen du.

*12. artikulua.–* Egiaztapen hauetan ikusiko balitz diru-laguntzaren onuradunak ez duela programa honetan ezarritako baldintzetakoren bat bete, kobratu dituen diru kopuruak eta kasuan kasuko legezko interesak itzul ditzala eskatuko dio Spri SAk eta, bere kasuan, itzulketa hori egin dadin behar diren legezko jarduerak martxan jartzeari ekingo dio.

AZKEN XEDAPENAK

1.– Onuraduna behartuta dago Spri SAri, Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikorako Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari edozein informazio ematera, diru-laguntzen helburua fiskalizatzeko lanak direla-eta hala eskatzen badiote.

2.– KZ Urruneko Backupa Programaren laguntza neurriak 2005-12-31ra arte egongo dira indarrean eta deialdi bidez luza daitezke, baina adierazten da, hala ere, aurkezten diren eskariak ekitaldi bakoitzean aztertuko direla hurrenkera kronologikoaren arabera, behar bezala bete direnean eta urtean helburu horretarako gaitu den kredituaren mugara arte. Urteko kreditua agortu eta gero aurkeztutako diru-laguntzen eskabideak hurrengo ekitaldian aztertuko dira, baldin eta horretarako krediturik badago eskabideari aurre egiteko.

3.– Spriren erabakia merkataritza alorrekoa da eta jurisdikzio eskuduntza epaile eta auzitegi zibilena da. Enpresa onuradunak, eduki dezaketen edozein eskumeni formalki uko eginez, diru-laguntzen programa hau interpretatu edo gauzatzerakoan sor daitekeen edozein auzi, desadostasun, arazo edo erreklamazio konpontzeko Bilboko Justizia Auzitegien esanetara jartzen dira berariaz, horiek baitira gai horietan eskuduntza dutenak.

4.– Oinarri hauetan aurreikusi gabeko kontuetan, azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilean ezartzen dena beteko da, dekretu horren bitartez onartzen baita EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina.

Indarrean sartzea.– Programa hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Bilbao, 2005eko ekainaren 8a.

Spri SAko lehendakaria,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

*Artículo 11.–* Spri, S.A. en colaboración con el Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, como responsable del impulso de la iniciativa, se reserva el derecho de realizar cuantas comprobaciones, inspecciones y demás medidas de control estime oportunas para velar por la correcta aplicación de los recursos públicos y para verificar el correcto desarrollo y aplicación del Programa KZ Backup Remoto.

*Artículo 12.–* Si en el curso de estas verificaciones se detectase que el beneficiario de la subvención ha incumplido alguna de las condiciones establecidas en el presente programa, se procederá por parte de la Spri, S.A. a solicitar la devolución de las cantidades percibidas, más los correspondientes intereses legales que correspondan procediéndose, en su caso, a poner en marcha las actuaciones legales a las que hubiera lugar para conseguir su reintegro.

DISPOSICIONES FINALES

1.– El beneficiario se obliga a facilitar cuanta información le sea requerida por Spri, S.A., la Oficina de Control Económico del Gobierno Vasco y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

2.– La vigencia de las medidas de apoyo del Programa KZ Backup Remoto será hasta el 31-12-2005 pudiéndose ser prorrogado mediante sucesivas convocatorias, señalándose, sin embargo, que las solicitudes que se presenten serán atendidas en cada ejercicio por el orden cronológico que les corresponda a partir del momento en que estén debidamente cumplimentadas, y hasta el límite del crédito anual disponible. Las solicitudes de ayuda presentadas a partir del agotamiento del crédito anual serán atendidas en el ejercicio siguiente siempre que exista crédito consignado al efecto dando validez a la solicitud realizada.

3.– La decisión de la Spri es de naturaleza mercantil y la competencia jurisdiccional es de los jueces y tribunales civiles. Las empresas beneficiarias, con renuncia formal a cualquier fuero que pudiera corresponderles, se someten de manera expresa, para la resolución de todo litigio, discrepancia, cuestión o reclamación que pudiera suscitarse, directa o indirectamente, respecto de la interpretación o ejecución del presente programa de ayudas, a los Tribunales de Justicia de Bilbao, competentes al efecto.

4.– En todo lo no previsto en estas bases, se estará a lo establecido en el Decreto Legislativo 1/1997 de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

Entrada en vigor.– El presente programa entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el BOPV.

En Bilbao, a 8 de junio de 2005.

La Presidenta de Spri, S.A.
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.